

Pablo Lorente Zapateria

IUko foru parlamentarioa

Soluzio gehiago, sinatze gutxiago

■ Gasteizko, Iruñeko eta Madrilgo sinatzeak (nire ustez, Itun kontzeptua jadanik ez da existitzen) ez dira oso irudimentsuak izan, eta, oro har, ETaren terrorismoaz aurreko bileretan defenditutako jarrera berak erakutsi dituzte. ETaren terrorismoa aipatu dut, zeren eta, egia bada ere sinatu dituzten dokumentuetako batzuetan Estatuaren terrorismoaz hitz egiten dela, oraindik ere jarraitzen baitute azaltzen eta baieztatzen Fronteen (biolentoen eta demokratren) teoria zehazgabe eta sinplea.

Hauteskunde garaian ez dira egokiak alderdi demokratikoen hitzontzikeria maximalistak, egungo gizarte egoerarengatik batzuek eta hauteskundeengatik bestetuek, ezinbestean elkarren ondoan anaia balira bezala agertu behar izan dutelako. Beste aukera bat galdu da: gehiago, ordea. Espainian eta Euskal Herrian biolentzia politiko eta sozialaren amaiera ekarriko duen elkarrizketa prozesua landu eta abian jartzeko, beste dokumentu batzuk sinatzeko baino.

Giza eskubideak, norbanakoena ziren kolektiboak, urratzen diren bitartean, munduko beste tokietan bezala hemen ere, noiz indar handiagoz, noiz gutxiagoz, biolentzia antolatua agertuko dute prozesuak izango ditugu. Horrela, bada, has gaitezuen indar politiko eta sozial guztien artean beidurrrik gabe irekitzen elkarrizketa politikorako bide bat, jende guztiak begi onez ikusten bide duena ahalbidetu eta gauzatzeko: giza eskubideak guztiz betetzea.

Espainiako Konstituzioaren barruan autodeterminazio eskubidea eta horretaz askatasunez baliatzeko posibilitatea onartzea ezinbestekoa eta premiazkoa da autodeterminazio eskubidearen aplikazioari eman beharreko soluzio politikoaz legez hitz egiten hasteko: izan ere, eskubide hori edozein herriri aitortzen zaio, eta, gainera, demokrata baten benetako kontzientzia eta praktikaren ara-

ETaren terrorismoa ez bada politikoa, dioten legez, badute Konstituzioa betetzea eta, kartzeletan dauden gainontzeko presoei bezala, ETari lotutakoei ere arautegia aplikatzea

bera, ezin zaio inori ukatu, ez eta eragotzi ere.

ETAren terrorismoa ez bada politikoa, dioten legez, badute Konstituzioa betetzea eta, kartzeletan dauden gainontzeko presoei bezala, ETari lotutakoei ere arautegia aplikatzea. Ez da legez espezifikorik izan behar terroris- moarentzat.

Irtenbide judicial eta polizia ez da, emaitzak ikustera, estrate- gia egokia euskal arazoari so- luzio kolektibo eta iraunkorra emateko. Estrategia horren bidez areagotu egin da giza eskubideen urraketa, ETA erakunde arma- tuarekin loturak izanda edo izan gabe, legez edo legez kanpo tor- tura, heriotza edo tratu txarrak zuzenean jasan dituzten pertsonen kasue- tan.

Kontramainfestazioetan, harrika, erretzen, iraintzen eta tu egiten agertzen den bloke sozial, elektorak, kaleko horrek ere elkarrizketa proposamenak egiten baditu, premiazkoa du jarrera hori praktikan erakusten hastea. Herri baten izenean egindako hilketa edo bahiketa bakoitza, beste hilari bat baino ez da askatu nahi den herri horrentzat. ENA- Men, eta bereziki HBN, ausartak izan behar dute, eta aldatu errepresioak atzera elikatzen duen norabide gabeko espirala. Etorzikunik ez dago iraina eta harrakada elkarrizketa eta proposamen politikoa baino lehenago erabiltzen di- tuen herri batentzat. Eta honetan ere- dugarri ditugu hainbat gizarte talde. Ditutuzen desberdintasunak eta inabar- durak gora-behera, nola giza eskubi- deak errespetatzea eta betetzea hala el- karrizketa ari dira defenditzen, beren ustez formula eta bide egokienak dire- lako, askotan esan den bezala, geure seme-alabei ezin utz diezaiekegun ga- tazka sozial eta politikoa konpontze- ko. ■

Erredakzioan izulia

Unai Iturriaga



Biolentziaz

Azken aspaldian eta batez ere aste honetan biolentziari buruz telebistan eta prentsan dabilen aztoramenduarekin nazka-nazka eginda daogen bat gehiago naizela esango nuke. Aurrekoak gutxi ez balira ETBren bigarren kateak lege zaharreko programa berri bat aurkeztu digu asteon. Sentsazionalismoa, bihotzeko aldizkariak eta politika bildu nahi di- tuen saio hori-hori bat: ¡Hay que ver! hamaika horrelako ikusteko jaio ginen. Hori bukatu eta berehala TVElek ere antzeko zerbaite eskemi zi- gun Callejaren parte hartze estelarrekin. Ko- koteraino nagoela, joder!

Biolentzia ETArekin edo kaleko istiluekin lot- zen dutenak ahaztu egin dira beste biolentzia mota batzuek. Zer da zure etxean aurrean egu- nero sekretu kotxe bat edukitzea baino biolen- toagoa? Zer da enkaputxatu batek bideoz zure mugimendu guztiak grabatzea baino biolentoa- goa? Ez ote da biolentzia EAJ/PNVk urteetan zehar dispersioa babestu ondoren orain presoan senitartekoen arduratan dabilela esatea? Galde diezaigun senitartekoei zein den sortarazi dien sentimendua? Ez al da biolentzia unibertsitatean egunero zineko goardia armatuak ikustea bes- terik gabe? Noiz konturatuko gara, begirada bat, keinu bat, biolentzi huts bihurtu daitezkeela? Noiz konturatuko gara Ertzaintza beste gorpu polizia bat gehiago dela hemengo edo hangok osatu arren? Noiz ohartuko gara biolentzia boterearen tresna nagusia dela?

Txillardegí



Jeltsin ulertu behar

Txetxeniarrek 735.000 ziren azkenengo erroldan, 1989koan. Zifra honi gehitzen badiogu 1984ko otsailaz geroztik depor- tazioaren ondorioz Kazakhstanen gelditu ziren 50.000, egungo txetxeniarren kopurua ez da iristen 800.000ra. Lurraldean hedadura kontuan hartzen badugu, zaila da Moskuk txetxeniarren askatasuna onartzea. Errusiak 17.045.000 ki- lometro karratu ditu, Txetxeniak, berriz, 15.500; honek esan nahi du Txetxenia galduz gero, Erru- siak bere lurraldearen % 0,09 galduko lukeela. Hori ezin da onartu. Orain, jendaketai begira- tzen badiogu, Errusian bizi diren txetxeniarrek kontuan hartuz, 957.000 txetxeniar ditugu munduan. Errusiako Errepublikak Federazioan, berriz, 168.041.000 lagun bizi dira. Horrez gai- nera txetxeniarrek musulmanak dira, sunnitak; errusiarrak, tradizioz behintzat, dakigun bezala ortodoxoak. Txetxeniarrek guk bezala adituz bitxia dute, nor-nori-nork, emakume eta gizasemeen aditza bereizten dute; errusiarrak berriz, behar den bezala, hizkuntza inoerparra dute. Bi data larriago. 1990eko azaroaren 27an, txetxe- niarrek inguxetiarekin elkartuta, independen- tzia aldarrikatu zuten, Mosku kontuan izan gabe. 1992ko martxoaren 3an, Moskuk federazio ber- rian sartzea eskaini zien, bide batez, Txetxenia- ko herria zatikatzeko. Inguxetiarek onartu zu- ten, baina txetxeniarrek ez. Hori guztia ikusita, Jeltsinek txikitu egin nahi ditu. Eta noski, txalo jo behar da.

L A P H I T Z A

